

# GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Ikusgai 2018ko irailaren 21ean

**Van Goghetik Picassora. Thannhauser legatua**

Babeslea:

Fundación **BBVA**

BBVA Fundazioaren hainbat egitasmok definitzen dute gure erakundearen nortasuna: batetik, ikerketa zientifikoa eta mugako kultur sorkuntza bultzatzea; bestetik, ezagutzarik onena (bai oinarrizkoa, bai aplikatua) eta artea zabaltzea, nagusi diren paradigmak gainditzea lortu baitute; eta, azkenik, publikoki aitortzea ekarpen horiek gure oraina moldatu dutela, eta, aldi berean, etorkizuneko oinarriak ezarri dituztela.

Bildumagile partikularrek iraganean artearekiko hartu zuten konpromisoari esker, gaur egun edonork goza dezake artearen historiako hainbat eta hainbat maisulanez. Guggenheim Bilbao Museoa hartuko duen *Van Goghetik Picassora. Thannhauser legatua* erakusketa alemaniar jatorriko Justin K. Thannhauser galerista, arte-merkatari eta bildumagileak bere bizitza osoan egin zuen ahaleginaren emaitza da. 1978an, Thannhauserrek bere funtsen zati handi bat legatu zion Solomon R. Guggenheim Museum Foundation-i.

BBVA Fundazioaren izenean, atseginez adierazten dut erakusketa gauzatzen laguntzeak eragindako poza. Erakusketa honek Parisen modernitateari hasiera eman zion artearen bilduma esanguratsuenetako bat biltzen du, eta Bilbo izango da, aldi baterako, bilduma horren Europako egoitza. Obra hauetan ikusten da Impresionismoan eta Postimpresionismoan hautsi egin zirela ordura arteko gaiak eta formak, Braqueren eta Picassoren ekoizpenari bide emateko; hain zuzen ere, horiek ekarri zuten Kubismoaren iraultza. Edgar Degas, Paul Gauguin, Édouard Manet, Claude Monet, Pierre-Auguste Renoir eta Vincent Van Gogh izan ziren berritzaile zerranda horretako izen handietako batzuk. Izan ere, XIX. mendearen amaieraren eta XX. mendearen lehenengo erdialdearen artean, Mendebaldeko panorama artistikoaren eraldaketa handienetako baten protagonista izan ziren.

Aurten, 2018an, *Chagall. Urte erabakigarriak, 1911–1919* erakusketa babestu dugu, hura ere geuk bakarrik. Erakusketa horretan, Vitebsk-en jaiotako maisu europarraren arte guztiz pertsonalaren hastapenak arakutzen ziren, eta arte modernoaren sorrerako garai esanguratsu horretan barneratzeko aukera interesgarria proposatzen zuen.

BBVA Fundazioko kide garenontzat, ohore handia da jakitea etengabe egiten dugun mezenasgo-eta babesle-lanaren bidez parte hartzen jarraitzen dugula Museoa pentsatutako erakusketa-proiektu handietan, eta, horri esker, Bilbok erreferentzia kultural garrantzitsua izaten jarraitzen duela nazioartean, urtez urte arte unibertsalaren figura handien obra hilezkorra edonorentzat ikusgai jartzen duena.

Nire zorionik beroena Juan Ignacio Vidarteri eta bere zuzendaritzapean dagoen Bilboko Guggenheim Museoko lantalde bikainari, bai eta Megan Fontanella komisarioari ere, erakusketa enblematiko honen diseinu eta muntaketa apartagatik.

**Francisco González**  
BBVA Fundazioaren presidentea

## *Van Goghetik Picassora. Thannhauser legatua*

- Datak: 2018ko irailak 21–2019ko martxoak 24
  - Komisarioa: Megan Fontanella, Solomon R. Guggenheim Museum
  - BBVA Fundazioak bakarrik babesten du
- 
- *Van Goghetik Picassora. Thannhauser legatua* Solomon R. Guggenheim Foundation-en Thannhauser bildumatik dator, eta ia 50 obra aurkezten ditu, bai Inpresionismoko eta Postinpresionismoko margolari handienak, bai lehenengo maisu modernoak (Paul Cézanne, Edgar Degas, Édouard Manet, Pablo Picasso eta Vincent van Gogh).
  - Lehenengo aldia da Thannhauser bilduma ospetsuaren sorta esanguratsu bat New Yorketik kanpo erakusten dela, 1965ean, duela 50 urte baino gehiago, Guggenheimen sartu zenetik.
  - Thannhauser bildumako obrak abangoardiako egileenak dira, zeinek artea askatu egin nahi izan baitzuten XIX. mendearen amaierako genero eta bitarteko akademikoetatik. Egileok fenomeno naturalen eragin aldakorrak arakatu zituzten, eta aztertu zuten nola irudikatu eraldatzen ari zen hiriaren ikuskizuna XX. mendearen hasieran, baliabide estilistikoak erabiliz, hala nola pintzelkada askea, bai eta jardunbide berritzaileak ere, hala nola plano piktorikoa zatikatzea.
  - Erakusketan, margolanak, eskulturak eta paper gaineko obrak ez ezik, artxibo-materiala ere badago, hala nola Thannhauserren galeriako inbentario-liburuak eta argazki historikoak, sakonki dokumentatzeko familia horrek beren garaiko zenbait artista, bildumagile eta arte-merkatariarekiko zuen konpromisoa.

Bilboko Guggenheim Museoak *Van Goghetik Picassora. Thannhauser legatua* aurkezten du. Erakusketa horri esker, lehen aldiz ikusi ahal izango dira New Yorketik kanpo Thannhauser bilduma ospetsuko obra gehienak — bilduma hori duela 50 urte baino gehiago egindako legatuari esker eman zitzaion Solomon R. Guggenheim Foundation-i—. *Thannhauser legatua* BBVA Fundazioak bakarrik babesten du, eta Inpresionismoko eta Postinpresionismoko margolari handi batzuen eta zenbait maisu modernoren (Paul Cézanne, Edgar Degas, Édouard Manet, Pablo Picasso eta Vincent van Gogh) ia 50 obra hartzen ditu barnean.

Thannhauser bildumak XIX. mendeko eta XX. mendearen hasierako artelan batzuk biltzen ditu, Justin K. eta Hilde Thannhauserrek Solomon R. Guggenheim Foundation-i legatuan emanak. Justin K. Thannhauser Heinrich Thannhauser arte-merkatari judu-alemaniarraren semea zen, zeinak Municheko Moderne Galerie sortu baitzuen 1909an. Txiki-txikitatik, Justinek aitarekin egin zuen lan gorantza-bidean zihoan galerian. Inpresionismoko eta Postinpresionismoko artista frantsesei eskainitako erakusketa-programa moldakor bat egiten lagundu zion, eta maiz antolatzen zituzten Alemaniako egile garaikideen inguruko erakusketak.

Moderne Galeriek, besteak beste, Municheko Artisten Elkarte Berria (Neue Künstlervereinigung München, NKVM) eta Zaldizko Urdina (Der Blaue Reiter) taldeen erakusketa garrantzitsuenak aurkeztu zituen —bietan egon zen Vasily Kandinsky, 1909an eta 1911n, hurrenez hurren—. 1913an, Thannhausertarrek Pablo Picassoren atzera begirako erakusketa garrantzitsuenetako bat antolatu zuten. Hala, harreman estua sortu zen Justin K. Thannhauserren eta Pablo Picassoren artean, 1973an artista hil zen arte.

Asmo handiko negozio-gizona izaki, Justin K. Thannhauserrek bigarren galeria bat ireki zuen Luzernan 1919an, Siegfried Rosengart lehengusuarekin. Zortzi urte geroago, Thannhauser galeria arrakastatsuek Munichetik Berlinera lekualdatu zuten egoitza, hura baitzen artearen epizentro zalapartatsua. Han, arte-merkatariak Paul Gauguin, Henri Matisse, Claude Monet eta antzeko beste artista batzuen erakusketa handiak antolatu zituen. Hurrengo hamarkadan, ordea, merkataritza-eragiketak zaildu egin ziren gobernu nazia boterera iritsi zenean, naziek baztertu egin nahi izan baitzuten abangoardiako “arte endekatua”. Berlingo Thannhauser galeriak 1937an itxi zituen ateak, Justin K. Thannhauserrek eta haren familiak Parisera emigratu eta handik gutxira. Azkenik, Thannhauser New Yorkera lekualdatu zen 1940an, eta, han, arte-merkatari pribatu bihurtu zen.

Thannhausertarrek berrikuntza artistikoa sustatzearekiko zuten konpromisoa bat zetorren Solomon R. Guggenheimen ikuspegiarekin. Biek espiritu bera zutela aitortzeko, Justin K. Thannhauserrek dohaintzan eman zion Solomon R. Guggenheim Foundation-i —harena da eta hark zuzentzen du New Yorken dagoen izen bereko museoa— bere arte-bildumaren zati esanguratsu bat, zeinak 30 picasso baino gehiago baitzituen. 1965az geroztik, Thannhauser bilduma horren zenbait aukeraketa ikusi ahal izan dira New Yorkeko Guggenheimen. 1991n, beste hamar obra jaso ziren dohaintzan, Justinen bigarren emazte eta alargun Hilde Thannhauser hil ondoren. Dohaintza horrekin, zabaldu egin ziren Guggenheimen funtsak, eta aberastu egin zen arte-merkatari garrantzitsuen familia horren legatua. Bilboko Guggenheim Museoan aurkezten den erakusketa hau historikoa da; XIX. mendearen amaierako eta XX. mendearen hasierako arte modernoaren garapena erakustez gain, Thannhauser sendiak arte esperimentalari eman zion babes etenezina nabarmenduko da.

## ERAKUSKETAN BARRENA

### **305 aretoa: Inpresionismoaren bilduma**

Thannhauser bilduma erabakigarria izan zen Solomon R. Guggenheim Foundation-en funts artistikoen esparrua zabaltzeko, aro modernoaren aitzindarien obrak baititu. XX. mendeko lehenengo hamarkadetako Alemaniako arte-merkatari garrantzitsuak izaki, Thannhausertarrek, tokiko artista garaikideekiko konpromisoa hartzez gain, erakusketa kolektibo eta banakako garrantzitsuak eskaini zizkieten XIX. mendearen amaierako abangoardiako artista frantsesei, hala nola Paul Cézanne-ri, Edgar Degas-i eta Édouard Manet-i. Parisen bizi ziren eta, hein handi batean, inpresionisten taldeari elkartu zitzaizkion artista errebelde horiek genero eta bitarteko akademikoetatik askatzen saiatu ziren: fenomeno naturalen eta hiri-gaien eragin aldakorrek arakatu zituzten, eta baliabide estilistiko berritzaileak erabili zituzten, hala nola pintzelkada askea eta ezohiko

konposizioak, bat-batekotasun ilusioa lortzeko. Berrikuntza formalak garatu zituzten, eta, horri esker, bizkor ugaritu ziren ikuspegi guztiz berriak hurrengo mendeko artean.

Manet-en *Ispiluaren aurrean* (*Devant la glace*, 1876) obran, adibidez, argi ikusten dira gai-mota berriak eta ez-konbentzionalak; izan ere, emakume gortesau bat irudikatzen da bere *psikearen* edo ispiuaren aurrean, erdi-erantzita. Ikuslearen papera hartuta, modeloaren une pribatuan sartzen gara, non, bizkarrez dagoela, kortsearen zinta bati tira egiten ari baita apain-gelan. Pierre-Auguste Renoir-en *Emakumea perikitoarekin* (*La femme à la perruche*, 1871) obra egilearen garai inpresionista baino lehenagokoa da, baina haren luma-itxurako pintzelkada bereizgarriarekin egina dago, zeinak testura ematen baitio eta haren obraren ezaugarri nagusietako bat baita. Eszena intimo horretan, emakume gazte bat irudikatzen da, gizarte-maila erdi-altukoa, bere perikitoarekin jolasten, baina barnealde itogarriak modeloaren espazioa mugatzen du, perikitoaren espazioa haren urrezko kaiolak mugatzen duen bezala giltzapetuta dagoenean. Tentsio horiek modako dama paristar baten egunerokotasuna irudikatzen dute. Gizonezkoak ez bezala, emakumezkoak etxe barruan sartuta egon ohi ziren ia denbora guztian, eta ez zitzairen uzten hirian aske ibiltzen.

### 306 aretoa: Postinpresionismoaren eta arte moderno goiztiarraren bilduma

Thannhausertarrek XIX. mendearen amaierako eta XX. mendearen hasierako arte europarraren bilduma egin zuten —garai hura konplexua izan zen, asaldura ekonomiko, politiko, sozial eta psikologikoak markatua, askotan aurrerapenaren izenean—, eta, hor, ikusten da askotariko estilo artistikoak sortu zirela garai hartako artean nagusi ziren bi joeren erreakzio gisa: naturalismo akademikoa eta inpresionistek mundu naturalarekiko zuten debozioa. Zenbait artistak, hala nola Paul Gauguin-ek eta Vincent van Goghek, zeinak Municheko Thannhauser galeriaren hastapenetan antolatu ziren funtsezko erakusketen protagonista izan baitziren, barrualderantz zuzendu zuten beren begirada artistikoa. Van Goghek, bere esperientzia pertsonalaren eta bere emozioen leiarraren bidez interpretatu zuen errealtatea. “Postinpresionistak” izaki —hala deitu zitzairen—, artea “mundurantzko leihoa” delako ideiaen kontra agertu ziren artista horiek, eta lerro okerrak eta kolore ez-naturalistak erabili zituzten beren obrei kutsu emotiboa emateko.

Buruko gaitz batetik sendatzen ari zen bitartean, Van Goghek *Saint-Remyko mendiak* (*Montagnes à Saint-Rémy*, 1889ko uztaila) margotu zuen, eta lan horrek artistaren aldartea irudikatzen du —bere ospitalearen inguruko harkaitz-multzo izugarriak ere agertzen dira—, pintzelkada dinamiko baten bidez, eta pintura oso lodia aplikatuz. Era berean, Georges Braque-k, bere *Paisaia, Anberesetik hurbil* (*Paysage près d'Anvers*, 1906) margolan fauvisitan, kolore sutuak eta espresionistak erabiltzen ditu, eta paisaia deseraiki egiten du argiari testura-sentsazioa emateko. Mende-aldaketan, beste forma artistiko batzuk agertu ziren, hala nola trebakuntzarik gabeko Henri Rousseau artistaren lan estilizatua eta itxura laukoa. Haren *Futbolariak* (*Les joueurs de football*, 1908) mihisea, edozein baso-paisaiatan kokatua, batetik, dibertimendu alai bat da, eta, bestetik, amets moduko batetik ateratako eszena.

**307 aretoa: Pablo Picasso**

1900ean, Pablo Picasso artista espainiarra Parisera iritsi zen (artearen munduaren nazioarteko zentroa), Munduko Azokarako. *Le Moulin de la Galette* (1900) da han egon zen bi hilabeteetan egin zuen margolanik garrantzitsuenak, eta margolan horretan ikusten da Picasso gaztea liluratuta zegoela Parisko gau-bizitzaren giro endekatu eta glamour traukilarekin. Haren estiloak azkar eboluzionatu zuen naturalismo handiago batetik haren aro urdin malenkoniatsura, eta, ondoren, aro arrosara. Azkenik, Picassok, Georges Braque-rekin batera, Kubismoak berezkoak dituen itxura fazetatuak eta espazio lautuak garatu zituen. Mugimendu artistiko hori 1907tik 1914ra hedatu zen —urte erabakigarriak izan ziren haiek—, eta XX. mendeko estilo artistiko berritzaile eta eragin handikoenetakoz jotzen da.

1930eko hamarkadan, Picasso artista ospetsua zen jada, eta haren jardun artistikoak eboluzionatzen jarraitu zuen. Justin K. Thannhauser bildumagile eta arte-merkatariak, harreman pertsonal sendoa zuen margolariarekin. Harreman hura goiz hasi zen bi gizonen ibilbideetan, Thannhauser sendiaren Municheko galeriak Picassoren lehenengo erakusketa handia antolatu zuenean Alemanian, 1913ko otsailean. Haren 30 obra —65 urteko sorkuntza hartzen dute barnean— Guggenheim Fundazioaren bilduman sartu ziren 1978an eta 1991n, Justin K. eta Hilde Thannhauserren dohaintzei esker, hurrenez hurren.

Thannhauser bildumako obra nabarmenen artean daude *Fernande mantelina beltzarekin* (*Fernande à la mantille noire*, 1905–1906) eta *Emakume ilehoria* (*Femme aux cheveux jaunes*, 1931). Lehenengoaren gaia Fernande Olivier da (ezkongabetan, Amélie Lang), Picassoren maitalea, zeina 1904an ezagutu baitzuen. Artistaren 60 obra baino gehiagotan da protagonista Olivier. 1912an, bikotea banandu egin zen. Hemen, Olivier enigmatiko bat irudikatzen du Picassok, mantelina tradizional bat duela. 1931ko mihise batean lo agertzen den emakumea bere beste lagunetako bat da: Marie-Thérèse Walter. Emakume hura ohiko gaia izan zen Picassoren obran 1930eko hamarkadan —harekin bizi zenean—, eta loaldi edo atsedeen sotileko une batean irudikatzen du —hori, artistarentzat, irudikapenik intimoena zen—.

**DIDAKTIKA**

“Oraingo iragana” izenburupean, erakusketa honen gune didaktikoak gaurkotasuneko gaien azterketa hartzen du barnean, hala nola genero-kontuak, edertasunaren ideala, aniztasuna, globalizazioa, komunikazioa eta gizarte-harremanak, zeinak Thannhauser bildumako obra batzuek aurreratu baitzituzten. Ikuspuntu garaikidea dugu hori, XIX. eta XX. mendeetako obren azterketan oinarritua. Iraganak ez du inoiz horrenbesteko eragina izan orainean.

Ondoren zehazten ditugu erakusketaren inguruan antolatutako jardueren batzuk:

**Hitzaldia: Thannhauser bilduma** (Irailak 19)

Megan Fontanella, erakusketaren komisarioa eta Solomon R. Guggenheim Museum-en arte-arduraduna den aldetik, Bilduma honetako obrez eta Thannhauser familiaren jardueraz eta arte modernoarekin zuten loturaz arituko da.

**Partekatutako hausnarketak\***

Museoko profesionalek bakarrik eskainitako bisitak erakusketaren, muntaiaren zirrikituaren eta bestelako bitxikerien inguru.

- **Arte arduradunen ikuspegia** (Irailak 21)  
Megan Fontanella, erakusketaren komisarioa
  - **Funtsezko kontzeptuak** (Urriak 3)  
Luz Maguregui, Hezkuntza Arloko Zuzendari Ordea.
- \*Fundación Vizcaína Aguirre-k babestua

**Sormen-saioak: Musika tailerra Islak** (Azaroko larunbatak)

XIX. mende amaierako eta XX. mende hasierako musika eta erritmo egungoenek bat egingo dute.

**KATALOGOIA**

*Van Goghetik Picassora. Thannhauser legatua* erakusketa osatzen duen argitalpen ilustratuak maisu modernoaren obraren azterketa kontzentratua egiten du. Maisu horien artean daude, besteak beste, Georges Braque, Paul Cézanne, Edgar Degas, Paul Gauguin, Édouard Manet, Pablo Picasso eta Vincent van Gogh. Ikerketa horrek aurkituntza berriak plazaratzen ditu Thannhauser sendiaren historiari buruz, haren galeriei buruz, eta, oro har, XX. mendearen hasierako Europako testuinguru kulturalari buruz.

Obrei buruzko saiakera laburrak hartzen ditu barnean, kontserbazio-arloko azken aurrerapen teknologikoetan oinarritutako analisi tekniko zabalekin, zeinek informazioa ematen baitute artistek erabilitako materialei eta prozedurei buruz. Guggenheimeko egungo eta iraganeko zenbait arte-aditueketa kontserbatzaileek bildumako pieza gako batzuei buruz eginiko saiakera labur batzuk ere biltzen ditu, pieza horien berrikuntza estilistikoei buruzkoak. Arte moderno eta artelanen jatorrien kuradore Megan Fontanellaren saiakerak Justin K. Thannhauserren arte-bildumaren sorrera kontatzen du, eta nola lekualdatu zen Guggenheimerara. Thannhauserrek gerren arteko Europan eta Bigarren Mundu Gerrako zorigaitzoko urteetan jorratu zuen bere asmo handiko ibilbidea arte-merkatari eta bildumagile gisa. Hark abangoardiarekiko zuen etengabeko konpromisoa, eta talentua eta originaltasuna hautemateko zuen sena —bi alderdi horiek XX. mendeko abangoardia artistikoak zehazten lagundu zuten— arakatu ditu Fontanellak. Argitalpenak ingelesez eta gaztelaniaz (separata, testuak euskarara itzuliak). Megan Fontanellak editatua. Hauen testuak: Julie Barten, Susan Davidson, John K. Delaney, Lidia Ferrara, Vivien Greene, Sasha Kalter-Wasserman, Natalia Lauricella, Gillian McMillan, Nathan Otterson, Federica Pozzi, Samantha Small, Lena Stringari, Jeffrey Warda eta Jeffrey Weiss.

**Azaleko irudia:**

Pablo Picasso

*Emakume ilehoria (Femme aux cheveux jaunes)*, 1931ko abenduak 27

Olio-pintura eta Ripolin pintura (est.) mihise gainean

100 x 81,1 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York

Thannhauser Bilduma, dohaintza, Justin K. Thannhauser 78.2514.59

© Sucesión Pablo Picasso, VEGAP, Madrid, 2018

**Argibideetarako:**

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio eta Marketin Saila

Tel.: +34 944 359 008

[media@guggenheim-bilbao.eus](mailto:media@guggenheim-bilbao.eus)

[www.guggenheim-bilbao.eus](http://www.guggenheim-bilbao.eus)

Guggenheim Bilbao Museoari buruzko informazio guztia hemen eskuragarri: [www.guggenheim-bilbao.eus](http://www.guggenheim-bilbao.eus)  
(prentsa-eremua).



Prentsa irudiak:

*Van Goghetik Picassora. Thannhauser legatua*

Guggenheim Bilbao Museoa

### Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan ([prensa.guggenheim-bilbao.es/eu](http://prensa.guggenheim-bilbao.es/eu)) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Prentsan erabiltzera bideratutako irudiek ondorengo zehaztapenak bete behar dituzte:

- Erakusketari buruzko artikuluetan bakarrik erabil daitezke.
- Osotasunean erreproduzitu behar dira, mozketarik, gainjartzerik edo manipulaziorik gabe.
- Irudiaren oina zerrendan agertzen den bezala adierazi, mesedez.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoz bidez, [media@guggenheim-bilbao.eus](mailto:media@guggenheim-bilbao.eus)

### Georges Braque

*Paisaia Anberestik hurbil (Paysage près d'Anvers)*, 1906

Olio-pintura mihise gainean

60,3 × 81,3 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York

Thannhauser Bilduma, dohaintza, Justin K. Thannhauser 78.2514.1

© Georges Braque, VEGAP, Bilbao, 2018



### Georges Braque

*Gitarra, basoa eta fruta-platera ontzitegian (Guitare, verre et compotier sur un buffet)*, 1919 hasiera

Olio-pintura mihise gainean

80,8 × 99,5 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York

Thannhauser Bilduma, dohaintza, Justin K. Thannhauser Foundation, truke

bidez 81.2821

© Georges Braque, VEGAP, Bilbao, 2018



### Paul Cézanne

*Natura hila: Katalintzarra, kopa eta pitxerra (Fiasque, verre et poterie)*, ca. 1877

Olio-pintura mihise gainean

46,2 × 55,2 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York

Thannhauser Bilduma, dohaintza, Justin K. Thannhauser 78.2514.3

© Solomon R. Guggenheim Foundation, New York (SRGF)



**Edgar Degas**

*Espainiar dantza (Danse espagnole)*, ca. 1896–1911 (moldaketa, ca. 1919–26)

Brontzea

40,3 x 16,5 x 17,8 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York

Thannhauser Bilduma, dohaintza, Justin K. Thannhauser 78.2514.9

© Solomon R. Guggenheim Foundation, New York (SRGF)

**Paul Gauguin**

*Haere Mai*, 1891

Olio-pintura jutezko mihise gainean

73 x 92 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York

Thannhauser Bilduma, dohaintza, Justin K. Thannhauser 78.2514.16

© Solomon R. Guggenheim Foundation, New York (SRGF)

**Édouard Manet**

*Ispiluaren aurrean (Devant la glace)*, 1876

Olio-pintura mihise gainean

93 x 71,6 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York

Thannhauser Bilduma, dohaintza, Justin K. Thannhauser 78.2514.27

© Solomon R. Guggenheim Foundation, New York (SRGF)

**Édouard Manet**

*Emakumea marradun soinekoarekin*, ca. 1877–80

Olio-pintura mihise gainean

175,5 x 84,3 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York

Thannhauser Bilduma, dohaintza, Justin K. Thannhauser 78.2514.28

© Solomon R. Guggenheim Foundation, New York (SRGF)

**Claude Monet**

*Dukearen jauregia San Giorgio Maggioretik ikusia (Le Palais Ducal vu de Saint-Georges Majeur)*, 1908

Olio-pintura mihise gainean

65,4 x 100,6 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York

Thannhauser Collection, legatua, Hilde Thannhauser 91.3910

© Solomon R. Guggenheim Foundation, New York (SRGF)



**Pablo Picasso**

*Bidearen amaieran (Au bout de la route)*, Bartzelona, ca. 1899–1900  
 Olio-pinturazko lausodura eta Conté ziria paper berjaturaren gainean, 47,1 × 31,3 cm  
 Solomon R. Guggenheim Museum, New York  
 Thannhauser Bilduma, dohaintza, Justin K. Thannhauser 78.2514.33  
 © Sucesión Pablo Picasso, VEGAP, Madrid, 2018

**Pablo Picasso**


*Le Moulin de la Galette*, Paris, ca. 1900eko azaroa  
 Olio-pintura mihise gainean, 89,7 × 116,8 cm  
 Solomon R. Guggenheim Museum, New York  
 Thannhauser Bilduma, dohaintza, Justin K. Thannhauser 78.2514.34  
 © Sucesión Pablo Picasso, VEGAP, Madrid, 2018

**Pablo Picasso**

*Emakume ilehoria (Femme aux cheveux jaunes)*, 1931ko abenduak 27  
 Olio-pintura eta Ripolin pintura (est.) mihise gainean  
 100 x 81,1 cm  
 Solomon R. Guggenheim Museum, New York  
 Thannhauser Bilduma, dohaintza, Justin K. Thannhauser 78.2514.59  
 © Sucesión Pablo Picasso, VEGAP, Madrid, 2018

**Vincent van Gogh**

*Saint-Rémyko mendiak (Montagnes à Saint-Rémy)*, Saint-Rémy-de-Provence, 1889ko uztaila  
 Olio-pintura mihise gainean, 72,8 × 92 cm  
 Solomon R. Guggenheim Museum, New York  
 Thannhauser Bilduma, dohaintza, Justin K. Thannhauser 78.2514.24  
 © Solomon R. Guggenheim Foundation, New York (SRGF)

**Édouard Vuillard**

*Place Vintimille*, 1909–10  
 Olio-pintura kolarekin Kraft paper marroiaren gainean, mihise gainean muntatua  
 Bi panel; ezkerrekoa: 200,1 × 70 cm; eskuinekoa: 200,2 × 70 cm  
 Solomon R. Guggenheim Museum, New York  
 Thannhauser Bilduma, dohaintza, Justin K. Thannhauser 78.2514.74  
 © Édouard Vuillard, VEGAP, Bilbao, 2018

**Henri Rousseau**

*Futbolariak (Les joueurs de football)*, 1908  
 Olio-pintura mihise gainean  
 100,3 x 80,3 cm  
 Solomon R. Guggenheim Museum, New York 60.1583  
 © Solomon R. Guggenheim Foundation, New York (SRGF)

